

ELHUYAR

R.S.V.A.P.-en Zientzi eraskina

ZUZENDARIA: *Luis Bandres*

IDAZKARIA: *Andoni Sagarna*

ZUZENBIDEA: *Círculo de San Ignacio. - San Marcial, 26, bajo. - San Sebastián*

BIDEAK URRATZEN

Urtea bere azkenetan dugun honetan, hilabete hauetan zehar egin den zenbait lan gogoratu nahi dugu, eta datorrenerako begibistan ditugunak agertu.

1975 garren urtean egin dena, labur bilduz, honako hau izan da:

- **ALDIZKARIGINTZA:** ELHUYAR eko lau zenbaki argitara dira, agindu bezala.
- **TEXTUGINTZA:** Anaya-ko 7. mailako "Natur Zientziak" (gida eta fitxa liburuak) prestatu dira, Ikastola Federazioaren eskariz.
- **IKASTAROAK:** UEU n parte hartu dugu, ohi bezala; zientzi saila programatu da, eta zenbait klase eman.
- **HIZTEGIGINTZA:**
 - * **Matematika hiztegia:** orain arte ezagutzen ditugun testu liburu guztiak (eta beste zenbait liburu) kontutan hartuz batetik, eta bestetik EGB ko 8 kursoetan gaztelaniazko textutan erabili ohi diren hitzak jasoz, hiru hizkuntzatako hitz zerrendak prestatu dira ordinatoreaz; datorren astean Euskaltzaindiari eskaini nahi zaio lan hori.

* **Jakin Bide-rako Fisika-Kimika hiztegia:** Beste zenbait adiskiderekin batera daramagu lan hau. Artikulu nagusiak idatzirik daude beren lehen itxuran, eta 5.000 ren bat hitz ere bildurik dago.

* **Teknika hiztegia:** hau dateke gaurkoz hizkuntzak dadukan atalik landu-gabeena. Geure aldetik egiten ari garena, zera da:

- herriak erabili eta erabiltzen dituen teknika hitzak bildu; iturri bideak, ahozkoak eta zenbait hiztegi (Azkue, Lhande) ditugu.
- lantegietan beharrezko diren hitz zerrendak prestatu eta teknologiazko zenbait gai euskaratu, bihar egunean garrantzi handia izanen duten uste osotan.

Datorren urte honi begira ere, hildo berdintsutik segitzeko asmotan gara: aldizkaria, ikastaroak, textugintza eta hiztegi kontua, hor ikusten ditugu geure eginahalak neurtzeko gairik egokienak. Baliteke, azken urtebiko honetan textugintzari alde orotatik ematen ari zaion bultzada ikusiaz, hurrengo pauso batetan pentsatzen hasi behar izatea: hots, liburu horik ikastoletan probetxuz erabiltzeko gaurko euskal irakaslegoa trebatu beharra; izan ere, gaiaz gainera zientzi hizkuntza standard batez ere jabetu beharretan gaude, eta hori lortzeko bideak oraindik finkatu gabe daude hein handi batetan.

Berririk gogoz kontrakoenak azkenerako uztea hain egoki ez bada ere, zer esan beharko dugu amaitzeko: litekeena dela aldizkaria prezioz igon behar izatea, bere egiazko kostua kobratzen diren 50 pezeta horietatik goratxo bait dago.

OHARRA:

4. zenbakian, zenbait artikulu egilearen izenik gabe agertu da. Berandu samar bada ere, hauexek dira beraien izenak:

Matematikarako materiala J. M. GOÑI
Z-Multzoa J. M. GOÑI
Hotsaren sorrera eta hedaketa . . I. AZKUNE